

# altza porru!

2019ko maiatza · 73

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHTE Allemendi 1 · 20800 ZARAUZ · Tel.: 943 83 28 28 · [trikitixa@trikitixa.eus](mailto:trikitixa@trikitixa.eus)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

[www.trikitixa.eus](http://www.trikitixa.eus)



Argazkia:EHTE

## Beste urte batez, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eskutik, trikitixa udalekuekin gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek

2004 eta 2008 urteen artean jaiotako, hau da 11 eta 15 urte dituzten gazte-txoentzako udalekua da.

Egonaldia Asteasuko Otabardi aterpetxean izango da **ekainaren 25etik 28ra**. Egun horietan dinamikak, hizketaldiak eta ikastaro ezberdinak egingo dituzte. Uneoro 3 begirale egongo dira bertan.

Egonaldiaren prezioa 160€-takoa da, guztia barne. Plaza mugatuak dira eta **ekainaren 4a baino lehen** izena eman behar da [trikitixa@trikitixa.eus](mailto:trikitixa@trikitixa.eus) helbidetan.





## OSTO ETA ALE

Jon Ostolaza eta Alejandro Irizarrek trikitia eta dultzainaren doinuak nahasiz atera berri duten diskoa da "Osto eta Ale". Kalejira, fandango, arin arin, bals, polka, mexikar eta kunbiekin osatua dago, pieza zaharrak berriekin nahasiz. Hainbat kolaboratzaile izan dituzte: Eugenio Gisasola "Lutxurdi" eupadakin, Inaki Letamendia perkusioan, Mari Karmen Larrañagaren irrintziak, Irati Irizar biolinarekin eta azken abestian Itziarke lagunak kantuan. Letrak Aitor Zubikarai, Ander Zulaika eta Joxe Salegi "Lizarreta" Itziarrek egin dituzte. Gaztelupeko hotsak zigiluarekin ateratako diskoa da eta edozein liburu-dendetan eskuratu daiteke.



## ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLA: LORATU DA HAZIA

Arrasateko trikitixa eskolako kideek ekaina erdirako kaleratuko duten diskoa izango da "Loratu da hazia". 11 abestiz osatuta egongo da, pieza herrikoiak eta berriak, tartean "Izer" eta Kristina Solanoren abesti banarekin. Moldaketak eta produkzio musikala Xabier Zabalak egin ditu eta Arrasateko Shot! Estudioan egin dituzte grabaketa lanak. Arrasate Musikaleko musikarien kolaborazioak izan dituzte eta baita Arrasateko rokeroenak ere. Diskoaren zuzeneko aurkezpena ekainaren 22an egingo da Arrasateko Monterron parkean.

## ELUSTONDO ANAI ARREBAK: BIZIRIK DAUDEN ESKUAK

Beraien aurreko trikitilariei eskainiko diete Elustondotarrek bigarren disko hau; hainbat une zoragarri biziarazi eta gerora etorri direnentzat itsasargi lanak egiteagatik. Estilo tradizional eta modernoagoak uztartuz, diskoak biltzen dituen 16 abestietatik 10 soinu eta panderoaz soilik grabatutakoak izango dira. Musikari bikainen laguntza izan dute disko honetan ere; Michel Longaron perkusioetan, Gurutz Bikuña gitarrearekin, Amaiur Cajaraville kontrabaxuarekin eta Xabi Zeberio biolinarekin. Kolaborazioetan ezin zuten hutsik egin Estitxu Pinatxok ahotsetan, Xabier Berasaluze Leturiak pandero eta kriskitinekin, Jose Maria Santiago Motrikuk panderoarekin eta Pilar Arestik eta Gotzone Sestorainek irrintziekin. Letragile lanetan Xabier Amuriza, Nerea Elustondo, Asier Iriondo eta Jon Sarasua jardun dira. Maiatza bukaran izango da aurkezpen ekitaldia eta ondoren Elkarren, ohiko dendetan, zenbait tabernetan eta zuzeneko emanaldietan salgai egongo da diskoa.



## AMATZAKO V. TRIKITI JAIALDIA

Amatzako Trikitixa Elkarteak antolatuta, bostgarren edizioa izango du bertako trikitixa jaialdiak. Uztailak 6, larunbata, eguerdiko 12:00etan hasita, honako bikote hauek igoko dira oholtzara:

- Roberto eta Miren Etxebarria
- Mirari, Aintzane eta Zalao
- Jokin San Jose eta Zuriñe Gonzalez
- Ruben Isasi eta Argibel Euba
- Hegoi eta Ainara Petite
- Martin eta Olaia

Jaialdiaren ondotik bazkaria izango da eta txartelak 15€tan eskuragarri egongo dira lurretako Gauargi tabernan eta Durango-ko plateruena kafe antzokian, ekainaren 28a arte. [amatzatritixita@gmail.com](mailto:amatzatritixita@gmail.com) helbidean ere erreserbatu daitezke.

## ERREZILGO I. TRIKITIXA JAIALDIA

Errezilgo trikitixa eta pandero ikasleek "Errezilgo I. trikitixa jaialdia" antolatu dute urteko proiektu bezala. Izer eta Alabier; Iker Goenaga eta Jon Lasa; Kristina, Maixa, Alaitz eta Amaia eta azkenik, Saioa Lizarralde eta Maddalen Arzallus izango dira parte hartzaileak, maiatzaren 24an arratsaldeko 19:30etan Errezilgo elizan egingo den jaialdian. Sarrerak [tapatapatpe@gmail.com](mailto:tapatapatpe@gmail.com) helbidera idatzita edo Errezilgo Borondegiko Berdie tabernetan eskuratu daitezke 8€tan. Egunean bertan ere salgai egongo dira 10€tan. Jaialdiaren ondoren afaria izango da. Bertako sarrerak ere (helduenak 18€ eta haurrenak 12€) eskuragarri daude aipatutako leketan.

## ANDER ZABALETA:

Denbora hauetan esku artean izan duzun arma al da trikitia? Lehendabizi trikitilaria ala medikua zarela esango zenuke?

Zalantzarik gabe. Trikitia bizitzaren arlo oso garrantzitsua da niretzat. Ate asko zabaldu dizkit, eta jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Trikitiak aukera eman dit nik neuk gozatzeko. Etxean neure kabuz jotzeko eta lasaitzeko balio dit, baina desko- nektatzeko ere. Jai giroan jotzeko ere gustatzen zait. Batak zein besteak kentzen didaten denborari erre- paratuz gero, momentu honetan medikua izango nintzateke. Asetasun pertsonalari dagokionez, baina, aurretik jarriko nuke trikitia.

Berria. 2019-01-09

## GEMA SISTIAGA:

Panderoarekin harreman handia dugu. Orain kalean ez gara horrenbeste ibiltzen, baina nik bikote izan dut Mentxu Alkorta eta oraindik jarraitzen dugu afa- ritan eta herriko festa giroan. Oronan 38 panderojole elkartu gara eta izugarrizko sorpresa izan da. Saiake- ra bat izan da EHko errepresentazio txiki bat biltzea eta pozik gaude adin guztietako emakumeak bildu garelako. Nik bizitza erdia daramat giro honetan, baina ez naiz oholtza gainera igotzea gustatzen zaie- netakoa izan. [...] Esan behar da panderojoleak oso alaiak gabela.

Euskadi irratia. Amarauna. 2019-03-30

## KRISTINA SOLANO:

Garai batean esaten zen trikitixa ez zela oso aproposa ikusten emakumeentzat. Zu trikitixa ikasten hasi zinene- tik trikiti munduan aldaketak nabaritu dituzu?

Nik emakume bezala ez dut sentitu inolako bazterketa- rik, inongo momentutan. Egia da ni erromerietan haste- rako bidea ireki zutela Maixa eta Ixiarrek eta agian jen- dea ohituago zegoen emakumeak oholtzan ikustera. Beharbada horregatik errazago sartu ginen Amaia eta ni. Orain momentuan emakume trikitilari asko ikusten da oholtza gainean. Irakasle naizen aldetik ere, nire ikasle gehienak emakumeak dira. Gainera, ausartzen dira oholtzara ateratzen eta horren erakusgarri gaur egun erromeri taldeetan dabiltzan emakumeak.

Tolosaldeko ataria. Hauspo artean. 2019-03-20

## MAKETA LEHIAKETA 2019

Trikitilari gazteak sorkuntzan murgiltzeko asmoarekin antolatu du elkarteak aurten ere maketa lehiaketa. Maiatzaren 13an bukatu zen bideoak jasotzeko epea eta estilo eta era ezberdi- netako piezak iritsi dira Elkartearen eskuetara. Guztira \_\_\_ lan aurkeztu dira eta hauetatik 10 aukeratuko ditu elkarteko zuden- daritza taldeak maiatzaren \_\_\_ean behin betiko emaitza kalera- tzeko. Aukeratuak izan diren taldeek ekaina eta uztailan egin- go dituzte grabaketak Hernaniko Oh Brother estudioan. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztiei!

## ITZIARKO ERROMERIA EGUNA

Maiatzaren 4an ospatu zen Itziarko erromeria eguna. Egun guztian zehar hainbat ekitaldi eta muskarik parte hartu zuten, tartean Kristina Solano, Ihintza Irizar eta Kristina Peña, Ostola- laza eta Raketel, Jagoba eta Naia eta Arandia anaiak trikitila- riak.

## Aurkitu 7 ezberdintasunak

